

# Alargunen ondarearen kudeaketa Aro Modernoan: gozamina eta ezkonsaria Europako tradizio juridikoetan



AMAIA NAUSIA PIMOULIER

*Universidad Pública de Navarra – Nafarroako Unibertsitate Publikoa*

[amaia.nausia@unavarra.es <https://orcid.org/0000-0001-6427-7074>]

## Sarrera

Antzinako Erregimenean, alargunek hainbat figura juridiko izan zituzten senarraren ondasunak kudeatzeko: monarkia hispanikoaren Pirinioetako tradizio juridikoetan edo Italiako lurralde batzuetan –ez horren eskuzabalak emakumeekin– gozamen-sistemak familia-ondarearen administratzaile bihurtzen zituen egoera horretan geratzen ziren alargunak, oinordekoak adin-nagusitasunera iritsi arte;<sup>1</sup> sistema fiduziarioetan –batez ere Herbehereetan eta Ingalaterran–, emakumea oinordeko fiduziarioa izatera igarotzen zen, eta, horrela, bere bizitzan zehar askatasunez izanen zuen senarraren ondarearen kuota, baita etorkizuneko ezkontza batera eramateko aukera izanik ere;<sup>2</sup> bestalde, batez ere Gaztelako irabazpidezko erregimenean, alargunari ezkonsaria itzuli ondoren, ezkontzan eskuratutako ondasunak erdibitzen ziren;<sup>3</sup> eta, azkenik, «testamendo de hermandad» delakoa bikotearen ondare osoaren oinordeko bihurtzen zituen bi ezkontideak.<sup>4</sup>

Alargunek senarren ondareak kudeatzeko zituzten sistema ezberdinen adibideak baino ez dira aurrekoak. Horrekin batera, alargunek Europa osoko tradizio juridiko gehien arabera ezkontzara eramandako ezkonsaria berreskuratzeak aukera zuten eta ondasun horren kudeaketak aukerak ematen zizkien emakumei euren etorkizuna bermatu ahal izateko. Lan honek Europan zehar egondako tradizio juridikoak aztertu nahi ditu alargunen ondasun propioak –ezkonsaria– eta senarraren ondasunen kudeaketa –gozamina– aztertzeko eta horretarako legedi ezberdinei buruz hausnartuko da Nafarroako Erresuman Aro Modernoan bizi izan ziren alargunen eskubidea bereziki aztertuz.

## Gozamenaren izaera juridikoa eta garrantzia Europa modernoan

Luze eztabaidatu da gozamen sistemaren jatorriari buruz. Nahiz eta autore batek ere ez duen zalantzan jartzen erromatar zuzenbidearen edo *Liber Iudiciorum* germaniarraren eragina figura juridiko horren sorreran eta bilakaeran, denak bat datoz Ohiturazko Zuzenbidea izan zela gozamen sistema elikatu zuen iturri nagusia.<sup>5</sup>

\* [Enviado 2024-10-22 • Aceptado 2024-10-30] • DOI: <https://doi.org/10.58504/rgu.38.4>

Nafarroari dagokionez, jatorri horretatik, gozamena lege-izaera izatera igaro zen, eta boluntarioa izatetik derrigorrezko erakundea izatera igaro zen. Nahiz eta hasiera batean eskubide unibertuala ez izan, eta ondorengoak izan zituzten ezkontzetara soilik mugatua, *La Novísima Recopilación*-ek indargabetu zuen seme-alabak izan zituzten eta izan ez zituzten ezkontzen arteko bereizketa (Arregui Gil, 1968, or. 61 eta 64). Azkenik, 1691ko Lizarrako Gorteek honako hau eskatu eta lortu zuten:

«Que el sobreviviente, marido o mujer, pudiese usufructuar en viudaje los bienes en contrato matrimonial al predifunto, y esto se entendiese como *usufructo universal de todos los bienes*, y no sólo de aquellos donados en los contratos matrimoniales».<sup>6</sup>

Beraz, figura juridiko honek alargunari hildakoaren ondasun guztiak gozatze-ko eskubidea ematen zion alargun zirauen bitartean.<sup>7</sup> Dotea ez bezala, gozamena ez zen emakumearen ondare propioa, baizik eta emaztea bere senarraren ondarearen aldi baterako administratzaile bihurtzen zuen eskubidea. Alargun nafarrentzat gozamenaren garrantzia emakumeari alarguntasunean aurrera egiteko eskaintzen zizkion baliabideetan zetzan. Nolanahi ere, ondasunen jabea ez zenez, senarraren zuzeneko oinordekoekiko auziak ugariak izan ziren, alarguna oztopo bezala ikusten baitzuten (Skinner, 1999, 62 or.). Horrela, foru eskubide hau familia askorentzat barne arazo bat bihurtu zen, eta horien erakusgarri dira amek seme-alabekin, senarraren gurasoekin eta abarrekin izan zituzten auziak.<sup>8</sup>

Kataluniari dagokionez, Tünde Mikesek azaltzen duen bezala, gozamenaren eskubidea alargunentzat Aro Modernoa baino lehenago existitu zen, *usdefruit* izenarekin, baina bakarrik alarguntasunaren lehenengo urtean –*any de plor*– eta alargunak senarraren eskutik jasotzen zituen ondarearen inbentarioa egiten bazuen. Geroago izan zen, 1564. urtean Kataluniako legeek *tenuta* eskubidea –senarraren ondarearen kudeaketa– arautu zutenean, beti ere lehenengo ezkontzako seme-alabei oinordekotza eskubidean lehentasuna aitortuz. Kasu askotan, Mikesek adierazten duenaren arabera, alargunek *tenuta* eskubide hau luzatu zuten bizi osorako eskubide bihurtuz (Mikes, 2017).

Izan ere, gozamena alargunen biziraupena bermatzeko modu gisa sortu zuten legegile erromatarrek (Pérez Baltasar, 1984, 21-22 or.). Faktore afektiboak sarritan bikote-harremanetan paper garrantzitsua jokatzen zuenez, maitasun horren ohoretan, senarrek, beren testamentu-xedapenen bidez, ezkontidea hildakoaren familiaren anbiziotik babesteko modua aurkitzen zuten.<sup>9</sup> Nafarroako Foru Orokorrean gozamena derrigorrezko erakunde bihurtu zen, eta ez borondatezkoa, berdin Katalunian 1564. urteko legearen arabera. Beraz, senarrak bere testamentuan ez zuen inolako eskubide berezirik ematen, gozamena berez baitzen eskubide. Hala ere bere alargunari etorkizunari hobeto aurre egiten lagunduko zioten abantaila batzuk eman ahal izanen zizkion. Beharbada hori izan zen 1594ko urtarrilean Pedro de Rocaforte bere azken borondatea idaztera bultzatu zuen gogoia. Pascuala de Andosilla, bere bigarren emaztea, bere hiru semeetatik gazteenaren ama zen. Pedrok Pascualaz fido zen, eta, beraz, bere alaba Maria, aurreko ezkontza batetik jaioa,

Pascoalarekin bizi zedin agindu zuen, «bere ama bezala» errespetatuz. Hala ere Pedrok susmatzen zuen bere alargunak arazoak izan zitzakeela Nicasio de Rocaforte anaiarekin, bere seme eta oinordeko bakarraren, Jeronimoren, tutorearekin. Hala, testamentuan adierazi zuen:

«Dejo de leja graciosa a la dicha Pascuala de Andosilla, mi mujer, *por la mayor afición que le tengo*, la suma de cien escudos de a diez reales por escudo de mis bienes, sin embargo de su dote, y más le dejo un manto y saya de luto».<sup>10</sup>

Pascuala bera jabetzen zen bere senarraren maitasunaz, azken borondate hura idatzia izan zela adierazi baitzuen «por estar satisfecho de la virtud y bondad y del amor que tenía a sus cosas».<sup>11</sup>

Jakina, emaztea babestean, senarrak bere seme-alabak ere babestu nahi zituen, eta horrek gozamina familia-unitatea mantentzeko modu bihurtzen zuen.<sup>12</sup> Ez da ahaztu behar emazteak, senarra hil ondoren, ezkonsaria erreklamatzeko eskubidea zuela berriro ezkontzeko asmoa bazuen edo, besterik gabe, bizitza berri bati ekin nahi bazion, eta horrek ondare hori familiaren ardatzetik aldentzea eragiten zuela. Gozamina modu egokia izan zitekeen amak beren ondasunak erreklama ez zitizan bultzatzeko (Lacruz Berdejo, 1966, 247-248 or.) eta, ezkontza berri bati uko eginez, ezkonsariarekin batera, seme-alaben ardurapean geratuko zen.<sup>13</sup> Izan ere, Lacruz Berdejorentzat, gozamenaren helburu nagusia ez zen alargun babesgabeari arreta ematea, gauza guztien gainera, familia-unitatea mantentzeko modua zen (Lacruz Berdejo, 1966, 248-249 or.).

Hala ere gozamenak familia elkarturik mantentzeko balio zuen bezala, amari bere seme-alaben gaineko botere handiagoa ematen zion (Benadusi, 1998, 90 or. eta Calvi - Chabot, 1998, 14-15 or.). Gozamenak ezkontza berri bati uko egitea zekarren, eta horrek amak beren seme-alaben tutore izateko gaitzen zituen. Egoera honek, familiaren ondarearen gaineko kontrolarekin batera, seme-alaben gaineko autoritate handiagoa ematen zien alargunei (Sheridan Walker, 1993, 84 or.). Aipagarria da Garesko alargun Pascuala Salvadorren kasua; Joanek, bere senarrak, bere ondasunen gozamedun izendatzeaz gain, testamentuaren bidez jaso zuen:

«Poder y facultad cumplida y para sí por caso alguna de las dichas nuestras hijas María Ceruco menor y Magdalena de Ceruco *se casare contra su voluntad de poder quitar del dote y bienes* suso a ellas mandados y dejados a la tal que fuere desobediente y darlos a la otra la parte o partes que la dicha Pascuala Salvador le pareciere».<sup>14</sup>

Jeronima Monzonek, berriz, Martin de Cruzaten testamentuaren bidez jaso zuen:

«Libre facultad para *que si alguno de los dichos mis cuatro hijos no lo fueren muy obedientes y tuvieren algunos encuentros con ella le pueda quitar de su parte lo que le pareciere*, como más fuere su voluntad porque ***siempre quiero estén de bajo de su dominio***, excepto en el dicho caso de casarse».<sup>15</sup>

Erabakitze gaitasun hori emakumeentzako estatus berri baten konkistatza hartu dute hainbat egilek. Familia-ondarea administratzeari esker lortutako auto-

nomiaren ondorioz, alargunak beren bizitzaren gaineko kontrol handiagoa zuten emakumeak ziren (Chabot, 1996, 49-50 or.). Bere ikerketan Kingek garaiko Ingalaterrako legegile baten hitzak aipatzen ditu:

«Dejad que os recuerde que ahora sois una mujer libre, una viuda, que tenéis plenos poderes como cualquier señor del país sobre la tierra de vuestro marido, [...] y por lo tanto sois señora de todo, y todo poseéis, [...] y *no os convertiréis más en una sierva*».<sup>16</sup>

Horrela, gozamina alarguntzat babesa eta autonomia eskuratzeko tresna bilakatu zen. Hala ere familiaren egonkortasun eta batasunaren alde ere lan egiten zuen; emakumeek dotea itzultzeari uko egin behar zioten eta seme-alaben ondoan egon.

### **Ezkonsariaren kudeaketa europako tradizio juridiko ezberdinetan**

1603an Isabelek senarra galdu zuenean, bere kidearen heriotzak eragindako minari amaginarrebaren, Catalinaren, kontra borrokatzearen atsekabea gehitu zitzaion. Izan ere, Isabel umezurtza zen, eta 1594an ezkondu zen Nicolasekin, ezkontzara ezkonsari on bat eramanez.<sup>17</sup> Erriberrin sinatutako ezkontza-kontratuan adierazten zenez, ondasun horien administratzailea bere senarraren ama, Catalina, izanen zen ordutik eta bere egunak amaitu arte. Horren truke, bere amaginarrebak ezkontzari dohaintzan ematen zizkion bere ondasunak eta bere senar zenarengandik jasotako ondasunak. Horrela, Catalina bizi zen bitartean, bikote gaztearekin partekatuko zuen bere etxea.<sup>18</sup>

Badirudi hirurak adiskidetsu bizi izan zirela, harik eta, Nicolas hiltzean, bi emakumeen arteko bizikidetzak okerrera egin zuen arte. Egoera jasanezina bihurtu zen eta Isabelek amaginarrebaren etxetik alde egitea erabaki zuen, berarekin seme txikia eramanez. Hala ere Isabel de Ciordiak ezkonsaria itzultzeko eskatu zionean Catalina Estebani, azken horrek ez zion itzuli nahi izan, eta Isabelek bere amaginarreba epaitegietara eramatea erabaki zuen.<sup>19</sup>

Ezkontzera zihoala, Isabel bezalako emakume gazte batek, bere ezkonsariak etorkizun duina ziurra ziezaiokeela sinetsita egiten zuen, senarra hilko balitz. Gainera, alguna ezkontzeko adinean bazegoen, ezkonsari horrek beste ezkontza bat bermatuko zion. Bestalde, baliteke senarrak kopuru jakin bat eman izana bere emazteari testamentuan, eta emazteak, senarra hiltzean, kopuru hori erreklamatu ahal izatea. Hala ere senarraren familiak ondasun horiek itzultzea ukatzen zionean, alargunak kereila jarri behar zuen bi aukera horiei eusteko: ezkontza berri bat eta egoera ekonomiko prekarioa gainditzea.

Nola kudeatu zuten ezkonsari hau Europako alargunek? Eta, zehazki, Pirineoetako ohitura juridikoa zuten emakumeek? Lehenik eta behin, esan beharra dago ezkonsariaren erroak erromatar garaian aurkitzen direla. Erromatar Zuzenbidea bere izaera patriarkalagatik nabarmentzen zen, *pater familias* defentsa, arbasoen jarraitzaile bezala, bere jainkoen ondare eta gurtzaren oinordeko bezala, funtsezkoa baitzen. Aitaren autoritate sendoari, emakumea babestu nahi zuten erakunde batzuk kontrajartzen zitzaizkion. Erakunde horien artean ezkonsaria zegoen: emaztea-

ren familiak ezkontzaren kargei eusteko emandako ondarea. Senarra hiltzen bazen edo emaztea gaitzesten bazuten, emazteak ekarpen hori berreskuratzeko eskubidea izanen zuen.<sup>20</sup>

Aro Modernoan, doteak emakumeen mundurako zutabe izaten jarraitu zuen. Ezkonsaririk ez izateak ezkontza-merkatuan ez sartzea esan nahi zuen, merkatu horrek transakzio-balioa baitzuen, hau da, neskatala ezkongabeek merkatu horretan zuten prezioa bezalakoa. Beraz, dotea ezinbesteko ekarpena bihurtu zen emakume ororentzat, haien egoera edozein izanda ere (Pérez Molina, 1994, 40-41 or.). Esan liteke emakumeen izaera definitzeko elementurik garrantzitsuen zela, zuzenbidearen, familiaren barruan zuten posizioaren, gizartearen esparruan ematen zitzaaien balioaren eta emakumeek elkarri aitortzen eta esleitzen zioten lekuaren ikuspegitik.<sup>21</sup>

Pérez Molinarentzat ezkonsaria bere oinordetza-eskubideengatik zegokionaren aurrerapena zen.<sup>22</sup> Hala ere beste egile batzuk ezkonsariaren jatorria hau denik ukatzen dute.<sup>23</sup> Diane Owen Hughesek, oraindik ere klasiko bat den «From Brideprice to Dowry in Mediterranean Europe» saiakeran, esaten du ezkonsariaren aldeko beste edozein transakzio mota apurka-apurka bertan behera uzteak emakumeak aitaren herentziatik behin betiko baztertzea adieraziko lukeela, taldeko gizonen alde, gizonen leinua indartzeko prozesu baten barruan, gizarte-harremanen arau gisa. Bigarren mailan bakarrik, eta ondorio paradoxiko gisa, ezkonsari on batek emakumeak jatorrizko agnazio-taldean sartzen laguntzen zuen: ondo hornitutako alaba bat, izatez, familia-talde osoarentzat, hazten ari zen estatus baten ikurra zen, eta aitarentzat eta neba-arrebentzat sozialki onuragarria zen ezkontza-aliantza baten bermea (Owen Hughes, 1978).

Aitzitik, Jack Goodyk dotazio-transmisioan emakumeen balorizazioa ikusten du, «aldebiko itzulketaren» sistema oso baten barruan. Sistema horretan, ondare-eskualdaketa, filiazioaren egituraketa bilinealari jarraituz, bitan banatzen zen. Ezkonsaria, aitaren ondarearen zati aurreratu gisa, funtsezko ekarpena zen bikote berriaren bizitzarako, eta, senarra hilez gero, alargunaren etorkizuna bermatzen zuen.<sup>24</sup> Ez zen, Hughesen ustez, alabak oinordetzatik kentzeko modu bat, baizik eta alaben balioa handitzeko eta haien etorkizuna bermatzeko modu bat.<sup>25</sup>

Italiakoa bezalako eremuetan, non jaraunspen-sistemak ohitura patrilineal handia zuen, emakumeak ezin baitzituen aitaren ondasunak heredatu –non eta ez zen aitaren seniderik maila jakin baten barruan–, emakumeak ezkonsarian aurkitzen zuen bere existentzia bermatzen zuen bitarteko bakarra. Testamentuz, aita batek berez utz ziezaiokeen bere alabari kopuru handiago bat, baina, oro har, ezkonsaria bere aliatu handia zen, bere egoerari eta ohoreari eusteko aukera ematen ziona (Klapisch-Zuber, 1988, 290-291).

Beste herentzia-sistema batzuetan, Nafarroakoan adibidez, emakumeak ez ziren baztertuak izaten herentziatik (Mikelarena Peña, 1995, 310 or.), baina horregatik doteak ez zuen garrantzirik galtzen alargunarentzat.<sup>26</sup> Horregatik, alargunak senarra

bizirik zegoela egin zuen ekarpena itzultzeko eskatzen duten arrazoien artean, honako adierazpen hauek errepikatzen dira:

«por causa que la dicha cantidad retiene el suegro della está sin cobrar los dichos bienes y sin que tenga con qué vivir»;<sup>27</sup> «que a la dicha Isabel de Juarbe, demandante, para durante esta causa, le manden proveer de alimentos y de las cosas necesarias de los bienes que fueron del dicho su marido, pues está sin su dote ni bienes algunos»;<sup>28</sup> «no es justo que deje de cobrar en tanto tiempo su dote y arras, con que se ha de remediar».<sup>29</sup>

Ezkonsariak Aro Modernoko alargunen biziraupen-aukerak bermatzeko halako garrantzia hartu zuenez, ezkonsaria itzultzeko eskubidea izan zen Europako lege-gileak gehien kezkatu zituen alderdi femeninoetako bat, erresuma ezberdinetako foruek eta legeek islatzen duten bezala. Figura juridiko horrek forma desberdinak hartu zituen Europako lurraldeetako legediaren barruan: adibidez, ezkonsaria itzultzeko prozesuei *giudicato* esaten zitzaien Errenazimentuko Venezian (Chojnacki, 1999, 465 or.); Valentzian edo Katalunian, berriz, emaztearen ekarpena ezkontzara itzultzeari buruzko legeak garatu ziren, ezkonsari edo *aixovar* gisa ezagutzen zena, bai eta senarrak eskaintzen zuen ezkontzagatiko dohaintzari buruzkoak ere, *creix* deitzen zena (Iradiel, 1986, 223-259 or.).

Ikusi dugunez, dotea oso lotuta zegoen emakume baten etorkizunarekin, zeren eta, printzipio orokor gisa, emazteak ezkontzara eramaten zituen ondasunak berezkoak zituen bere bizitza osorako. Horren jakitun zen Juan de Subizaren alarguna, Maria Bardoz, 1550ean bere aitagarreba zen Sancho Subizaren aurka auzia jarri zuena, bere dotearen 120 dukatu, ezkontza egunean eraman zuen ajuarra eta bere senar Juanek agindutako 100 libra itzultzeko eskatuz. Berak zioen ezkonsaria:

«Propio patrimonio de la demandante con el que ella se ha de entretener y remediar, (así pues) nadie es parte para disponer de su hacienda si no ella mesma».<sup>30</sup>

Klapisch-Zuberrek ezkonsariaren jabetza ere aipatzen du termino horietan, emaztegaiak ezkontzari ematen zizkion dotazio-ondasunen jabetza, hasiera batean, biziartekoa zela uste baitu (Klapisch-Zuber, 1988, 290 or.). Hau da, Europa modernoan, oro har, ezkonsariaren jabetza «erreal» emakumearena zen, beste gauza bat zen. Adibidez, Gaztelan emakumea zen ezkonsariaren jabea, baina senarra arduratzen zen kudeaketaz (Díaz Hernández, 2004, 104). Aragoian senarrak bere bikotekidearen ondasunen gaineko eskubidea zuen, emaztearen borondatearen aurka erabili arren.<sup>31</sup>

Gauza bera gertatzen zen XV. mendeko Italian. Emakumeak ezkonsaria eman eta seme-alabei edo oinordekoei eskualdatzeko aukera bazuen ere, sarritan aukera gutxi izaten zuen ezkonsaria osorik kudeatzeko. Adibidez, emakume batek, bere heriotza-ohetan, ezkonsaria bere seme-alabei eman nahi zientean, bere alargunarentzat gordetako kuota errespetatu behar zuen, zeina batzuetan ezkonsari osoa baitzen.<sup>32</sup> Izan ere, Aro Modernoaren hasierako Italian ezkonsariaren transakzio-akordioak emaztearen familiaren eta senarra izanzen zenaren artean egiten ziren, eta akordio horietan emazteak ezer gutxi esateko zeukan (Guerra Medici, 1996, 76 or.).

Erdi Arotik XIX. mendera arte, Ingalaterrako herentziei buruzko legeak berdintasunezkoak ziren Europako estandarrentzat, baina ezkontza-legeak ez ziren oso berdintzaileak. Lege komunaren arabera, emazteak senarraren alde galtzen zituen bere jabetza pertsonal guztiak. Hau da, Ingalaterran, ezkontza-batasunaren teoriak aukera ematen zien senarrei emazteak heredatutako edozein jabetza kontrolatu eta kudeatzeko, eta horrek mugatu egiten zituen bere kabuz jarduteko aukerak (Mate, 1999, 94 or.).

Zer gertatzen zen Nafarroan? Maria Bardozen hitzek Aro Modernoko alargun nafarren kontzientziaren fede ematen dute ezkonsaria beraiena zela, eta beraiena bakarrik. Mariaren aitagarrebak argudiatzen zuenez, alargunaren aitak, senarra hil zenean, ezkonsaria epeka itzultzea adostu zuen bere aitagarrebarekin: lehenengo 1550eko Gabonetarako, eta bigarrena 1551ko amaieran. Maria, haserre, zera esan zuen:

«No obsta el aserto convenio que dice el defendiente haber hecho con Sancho Bardez, padre de la demandante, sobre la restitución y paga de la dicha dote y arras, porque en caso que tal convenio hubiese hecho no podría perjudicar a mi parte en el derecho y acción que tiene y le compete para la cobranza de su dote y arras y mejoramiento, ni sería el dicho su padre parte para hacer entre juicio della sin su poder y voluntad tales convenios, ni para dar los que dice plazos, cuanto más que en ser la dicha dote y arras propio patrimonio de la demandante, con que ella se ha de entretener y remediar, nadie es parte para disponer de su hacienda si no ella misma, la cual no es justo que deje de cobrar en tanto tiempo su dote y arras con que se ha de remediar. Y si el dicho Sancho Bardez ofreció los dichos plazos sería pensando que la demandante se holgaría dello, pero no quiere ni le cumple estar a ellos».<sup>33</sup>

Jakina, kontzientzia hori errealitate juridiko baten ondorio zen. 1580ko Iruñeko Gorteen alargunek senarrak eskainitako ezkontza-horniak<sup>34</sup> erreklamatzeko zuten eskubidea aipatu zuten, ezkonsariaren pribilegio bera baitzuten, emakumeen ondarea baitzen.<sup>35</sup> Pirinio aurreko Nafarroa aztertzean, Antonio Morenok eta Ana Zabalzak ikusi zuten ezkontza-kontratuetan ohikoa zela alargunak bere dotazio-ondasunei, erresei eta irabazpidezko ondasunei, hau da, ondasun higigarriei, berriro heltzeko zuen askatasunari buruzko klausula, izaera «pertsonal» handia baitzuten (Moreno Almárcegui-Zabalza Seguín, 1999, 140-141 or.). Azken batean, dotea eta ezkontza-horniak emakumearen berezko ondasuntzat hartzen ziren.

Eta bere Nafarroako emakumeen aukerak beste eskualde batzuetako emakumeenak baino zabalagoak dirudite. Hasteko, Italian ez bezala, Nafarroako emakumeek ezkonsaria oso-osorik transmiti ziezaieketen oinordekoei, eta ez zioten inolako kuotarik gorde behar senar alargunari.<sup>36</sup> Gainera, dotea eta ezkontza-horniak nahiz eta bigarren, hirugarren edo laugarren aldiz ezkondu, alargunaren esku jarraitzen zuten. Lehen ezkontzako seme-alabei ez zieten doterik gorde behar, ondasun horiek eurenak zirelako, eta, beraz, ezkonsaria eta ezkontza-horniak, noranahi joanda ere, bere jabetza zirelako.

XVII. mendearen erdialdetik eztabaida juridiko bat sortu zen gai horren inguruan Nafarroan. Alargunek beren dotazio-ondasunak berarekin eramatea behin betiko ezarri zuen legea XVII. mendeko azken laurdenekoa da. Gorteek erabaki hori hartu aurretik, 1642an, Nafarroako legeek ezarri zuten dohainen itzulketak berehalako eragina izanen zuela ezkontzatik seme-alabarik geratu ez zenean. Amak, berriz, hurrengo ezkontzara eraman zezakeen ezkonsaria, baina ondasun horien erdia lehen ezkontzako seme-alabentzat gorde behar zuen. Eskaera hori gorabehera, erregeak banaketa horrek ondoriorik izan ez zezan agindu zuen.<sup>37</sup> 1677-1678ko gorteetan ezarri zen alargunek, seme-alabak izan ala ez, eskubidea zutela beren dotazio-ondasunak osorik ezkontza berrietara eramateko. Gorteek azaldu zuten:

«por ser materia tan privilegiada, como las dotes de las mujeres y para que cesen las cuestiones que de esto se han originado, y cesen las interpretaciones, suplicamos a vuestra Majestad sea servido de concedernos por Ley por interpretación de la dicha ley 27 (1642. urteko legearen inguruko aipamena da), que en las dotes y demás bienes que llevaren las mujeres a los segundos y demás matrimonios, los llamamientos hechos a favor de los hijos de los primeros matrimonios se tengan por revocados, aunque no haya expresa revocación de ellos, sólo con llevar sus bienes al matrimonio».<sup>38</sup>

Hori ez zen gertatzen monarkia hispanikoko beste erresuma batzuetan. Aragoinko legedian, zera esaten da:

«Según el Fuero, las dotes que son asignadas por el marido a la mujer se llaman, por derecho, ‘donación por razón de matrimonio’ y, por Fuero, se llaman ‘dote’. Y esa ‘dote’ o ‘donación por razón de matrimonio’, una vez muerto el marido queda para la mujer y sobre ella tendrá viudedad. Pero, si se casa con un segundo marido, aquella dote o donación vuelve a los hijos del primer marido. Y, si no hay hijos, volverá a los parientes del primer marido difunto».<sup>39</sup>

Hau da, kasu honetan, ezkontza-horniak, alargunek gozatzeko gaitasuna izan arren, ez ziren euren jabetzakoak. Valentzian eta Katalunian, ezkontzak irauten zuen bitartean, senarrak ezkonsaria eta *creix*-a kudeatzen zituen, eta emakumeak ezin zituen *inter vivos* dotazio-ondasunak eskuratu: ezin zizkien seme-alabei edo beste batzuei saldu edo eman, senarraren baimenik gabe (Belda Soler, 1966, 87 or.).

Ezkontza-horniak ere garrantzitsuak ziren alargunentzat, Nafarroako kasuan emakumearen ondarea ziren, Aragoikoan gozamina baino ez zegokion. Hala ere zer portzentai zen dotea ezkontza-horniekiko eta alderantziz? Erdi Aroko azken mendeetan, Valentziako artisauen artean ohikoena zen *creix* dotearen ehuneko berrogeita hamar izatea, eta Katalunian, berriz, ezkontza-hornia edo *creix*, kasu honetan *escreix*, ezkonsariaren balioaren herenaren eta erdiaren artean zegoen (Pérez - Gil, 1990, 31-32 or.).

Gaztelako ezkontza-horniak, *Novísima Recopilación*-ek jasotako Toroko 50. legegaren arabera, ezin ziren senarraren ondasunen hamarrena baino gehiago izan,<sup>40</sup> ezta emazteak eskainitako ezkonsariaren zortzirena baino gehiago ere.<sup>41</sup> Gaztelarekin batera, nafar ezkontza-horniak ziren monarkia hispanikoaren erresumetako



eskasena: 1580an Iruñean bildutako Gorteek erabaki zuten gehiegikeria gehiegi ematen zirela alor horretan, eta ezkonsariaren zortziren bat baino ez zirela izan behar.<sup>42</sup>

María del Carmen García Herrerok Zaragozan ezkonsaria sinatzeko eredurik zabalduena aztertzen du. Valentziako Erresuman, Katalunian eta Nafarroan ez bezala, senarrak ez zuen bere ondasunekin handitzen emazteak ezkondu ondoren eman ziona, eta, beraz, emakumeak bikotekideak sinatutako proportzioa izatea zen araua. Kasu gehienetan ezkontza bi ezkontideen *ajuar* eta ezkontza-laguntzen gainean eraikitzen zenez, horrela, sinaduraren bidez, senarrak emazteari ziurtatzen zion oztoporik gabe berreskuratuko zuela berak ekarritako ondasunen zati proportzional baten jabetza osoa. Sinadura hori diru kontantean ebazten zen, eta esleitutako proportzioa ez zen beti berdina, batzuetan % 50a itzultzen zitzaion, beste batzuetan % 25a. Emakumeen *ajuar*-aren erdia edo zati bat ziurtatzea oso jokabide hedatua zen XV. mendeko Zaragozan, nahiz eta kasu batzuetan senarrak dokumentu bat sinatzen zuen emazteari ezkontzan laguntzeko eraman zuen diru guztia emateko. Ezkonsaria, beraz, emakumeak emandako ondasunetatik abiatuta eraikitako aseguria zen, eta, beraz, logikoa da senarrak hura kontrolatzeko gaitasunik ez izatea. Baldintzak jartzeko ahalmena ondasunak emateak ematen zuen, eta hori ez zen senarraren kasua (García Herrero, 1990, 273-275 or.).

Azken batean, dotea eta ezkon-horniak administratzeko gaitasuna eskualde bakoitzeko tradizio juridikoaren arabera aldatzen bazen ere, ezkonsariaren «benetako» jabetza emakumeena zen. Beraz, logikoa litzateke pentsatzea legeak alarguna babestuko lukeela ezkonsari hori bueltan eskatzen zuenean. Hainbat egilek alargunek beren ezkonsariak berreskuratzeko zituzten eskubideak aztertu dituzte,<sup>43</sup> horien artean Stanley Chojnackik Errenazimentuko Venezian ezkonsariaren itzultzearen eskubidea aztertzen du «Riprendersi la dote: Venezia, 1360-1530» artikuluan.<sup>44</sup> Ezkonsaria berreskuratzeko arauak 1242ko estatutuetan ezarri ziren, eta Chojnacki ikertzen duen aldirako ez ziren aldatu. Senarra hiltzean, alargunak bere ezkonsaria jaso ez bazuen, alargunak berak, haren ordezkariak edo oinordekoak, hil egin bazen, bi fasetan banatutako prozedura bati jarraituz erreklamatzeko zuten: *vadimonium*-a, non alargunak bere doteari buruzko agiriak aurkezten baitzizkien epaileei; *diudicatus*-arekin, berriz, epaileek senarraren ondarea hartuz baimentzen zuten ordainketa, eta hori nahikoa ez balitz, ezkonsaria bermatu zuten pertsonen ondasunetatik hartzen zuten (Chojnacki, 1999, 466-467 or.).

Monarkia hispanikoaren barruan, Valentziako Erresumaren kasua aztertu da gehien.<sup>45</sup> Esan bezala, Valentzian, Paulino Iradielen arabera, ezkontza gehienek bi zutabetan oinarritzen zuten beren familia-ekonomia: emaztearen ekarpena (dotea edo *aixovarra*) eta senarrak eskaintzen zuen «ezkontzagatiko dohaintza» (*creix*). Senarra hiltzean, alargunak testamentu bidez edo ezkonsaria itzultzea eta ezkontzideak eskainitako ezkonsaria handitzea erreklamatzeko baliatzen zitzaizkien; ondasun horiekin alarguntasunari aurre egin behar zion (Iradiel, 1986, 223-259 or.). Hala dago jasota

Valentziako 29 eta 30 foruetan, bosgarren liburuan, *Rubrica quinta* izenekoan, *exovarra* itzultzeko modukoa dela esaten baitute. Izan ere, bai *exovarra* bai *creix* delakoa itzultzeko modukoak dira funtsean, hori bai, alargunak *any de plor* errespetatu behar zuen *creixaren* itzulketa hori, hau da, ez zen bigarren aldiz ezkonduko bere senarraren heriotzaren ondorengo urtean.<sup>46</sup>

Venezian alargunek epe batzuk bete behar zituzten dotea berreskuratu nahi bazuten. Alargunari eskatzen zitzaion auzitegiari jakinarazteko bere ezkonsaria erreklamatzeko asmoa zuela senarra hil eta urte eta egun baten barruan. Lehen fasea amaitu ondoren, alargunak hogeita hamar urte zituen hura itzultzeko eskatzeko (Chojnacki, 1999, 466-467 or.). Beste leku batzuetan, ondasunak erreklamatzeko marjina ez zen hain zabala. Gaztelan, familia politikoak senarraren ondasunak erreklamatzeko zituen unetik aurrera, alargunak hogeita egun zituen senarraren ezkontza-horniak eskatu nahi zituen erabakitzeke.<sup>47</sup> Gaztelako ezkonsariari dagokionez, legeak itzulketarako ezartzen zuen denbora aldatu egiten zen ondasun higiezinak –kasu honetan berehalako itzulketa– edo higigarriak –urtebetara arte– baziren. Hala ere ezkonsariak sortutako fruituak ez zeuden legez itzultzera behartuta (Díaz Hernández, 2004, 83-85 or.).

Zer gertatzen zen senarraren familiak edo ondorengoek ezkonsaria itzuli nahi ez zutenean? Oro har, Europako gorputz juridikoek alarguna ekonomikoki konpentsatzeko legeak sortu zituzten, haren ondasunen ordainketa gauzatzen zen bitartean. Nafarroan, 1642ko Gorteek ezartzen zuten bezala –1570eko Pio V.aren deklarazio baten arabera–, emakumeek, senarra hilda, seme-alabarik geratu ez arren, ezkonsaria itzultzea eska zezaketen eta interesak kobratu, guztiz itzuli arte.<sup>48</sup> Venezian alargunak senarraren ondarearen kontura bizitzen jarrai zezakeen bitartean, eta *diuudicatusa* jaso arren, senarraren etxean gera zitezkeen ezkonsaria erabat itzuli arte (Chojnacki, 1999, 466-467 or.). Gauza bera gertatzen zen Bizkaian, baina alargunak bikotearen etxean jarraitzen zuen aldia urtebete eta egun batera mugatzen zen:

«Otro sí, que si cae que quien vino a la tal casería fue mujer con dote o arreo, que esta tal, suelto el matrimonio sin hijos o descendientes, pueda estar un año, y día, estando en hábito viudal, y gozar el usufructo [...], pueda gozar para sus alimentos sin descuento alguno: y lo mismo sea en el varón, que a la casa de la mujer veniere. Y pasado el año y día, estando dentro y gozando de los frutos suso declarados, pueda pedir cada uno de ellos lo suyo, como viere que le cumple y goce los frutos hasta que le paguen su dote sin descuento alguno, y que acabado el año y día, ofreciéndole su recibo, sea tenido de salir y no antes».<sup>49</sup>

Valentzian eta Katalunian antzeko erakunde bat zegoen, familia politikoak ezkonsaria itzultzeari uko egiten zionean martxan jartzen zena: *tenuta* eskubidea. Dolu-urtea, *any de plor*, igaro ondoren, emakumeak hildakoaren ondasun guztiak bereganatzen zituen, legeak hala aginduta fruituak bere egiteko ahalmenarekin. Berme-eskubidea zen, *exovarraren* itzulketa ziurtatzea baitzuen helburu. *Tenuta* iraungi egiten zen senarraren oinordekoek ezkonsaria itzuli eta dotazio-gehikuntza

ordaintzen zutenean; beraz, senar-emazteek ezkontza iraungi eta berehala ordaintzen bazuten, eskubideak ez zuen ondoriorik izanen. Alargunak pribilegio hori gal zezakeen, maltzurkeriaz edo beharrik gabe gozamina luzatzen bazuen (Guillot Alia-ga, 2000, 453-478 or.).

Gaztelan, seme-alabak geratzen zirenean, «dotazio-irabaziak» deiturikoa ezar zitekeen, eta, horren bidez, zenbateko finko bat esleitzen zitzaion emakumeari alargun geratzen zenerako, hau da, emakumea bere seme-alaben kontura ez geratzeko nolabaiteko aseguruua zen (Díaz Hernández, 2004, 104 or.). Florentzian, aldiz, senarraren oinordekoek uko egiten bazioten etxean edukitzeari, eta ezkonsaria ere ez bazioten itzultzen, alargunak tornata eskubidea zuen. Bere jatorrizko familian babesteko eskubidea zen. Alarguna hartzea, bizitzeko bitartekoak bermatzea eta tei-latua izatea betebeharrak bat zen ahaide hurbilentzat eta oinordekoentzat (Klapisch-Zuber, 1988, 291-292 or.).

Alargunek beren ondasunak erreklamatu arte ezkontidearen ondasunen gozamina izateko eskubidea izateak ekintza aukera handia ematen zien. Gainera, Chojnackik dioenez, senarrek beraiek sustatzen zituzten beren emazteak ezkonsaria bueltan eskatu ez zezaten, eta horrela ez ziren bigarren aldiz ezkonduko.<sup>50</sup> Venezian, betiko bizilekuaren pizgarriarekin, alargunek ez lukete berriro ezkontzeko beharrik sentituko, eta ez lituzkete seme-alaben interesak arriskuan jarriko. Noski, interes horien artean ez zeuden afektiboak eta moralak bakarrik, ekonomikoak ere bazeuden; izan ere, amak, ezkonsaria bikotekide berrian edo harekin izan zitezkeen seme-alabetan inbertitu beharrean, senarra zenaren umeentzat gordeko zuen.<sup>51</sup>

Hala eta guztiz ere, Chojnackik azpimarratzen du Veneziako estatutuek esplizituki baieztatzen zutela emakumeek alargun geratzea aukeratzen bazuten beren dohainak itzultzeko eskubidea izaten jarraitzen zutela. Froga gogokoena notarioak idatzitako agiria zen, zeinaren bidez senarrak ezkonsari osoa jaso zuela aitortzen baitzuen, *securitatis dotis*, eta, ondoren, ezkontza-kontratuak (Chojnacki, 1999, 473-474 or.). Nafarroan, alargunen prokuradorek behin eta berriz aurkeztu zituzten auzitegian ezkontza-kontratuak eta ezkonsaria emateko notario-aktak, halakorik zegoenean.

Holandarren kasuan, alargunek erraztasun handiak zituzten: Erdi Arotik leinuaren herentzia, tituluak eta ondasunak, emakume zein gizonengana itzul zitezkeen. Ezkontza desegitean, espero zezaketen beren soinekoak, opariak, bitxiak, ezkontzeko unean senargaiaren aurrean zeudenak berreskuratzea, eta, zeharka, senarraren leinuaren jaraunspeneko ondasunak berreskuratzea, nork bere erabilerarako (Marshall Wyntjes, 1982, 399 or.).

Laburbilduz, Europako legeriak ezartzen zuen alargunak ezkonsaria berreskuratzeko eskubidea zuela. Monarkia hispanikoaren erresumetan eta Italiako estatutuetan, Frantziako, Ingalaterrako eta Holandako legeek senarraren heriotzari aplikatutako eskubide hau onartzen zuten. Tradizio juridiko bakoitzak berme desberdinak ezartzen zituen itzulketa hori egin zedin, baina, oro har, eta aitagarreba-amagi-

narreben eta koinatuen erresistentzia gorabehera, legeak alarguna babesten zuen ezkonsaria eskatzeko orduan.

Itzulketa bermatuta zegoen, edo, gutxienez, zuzenbideak eta erakundeek babestuta. Hala ere ezkonsariak eta ezkontza-horniek aldaketa logikoak jasaten zituzten urteen joanean. Senarrak, baliabide horien kudeatzailea zenak, inbertitzeko, zorrak ordaintzeko eta abarrerako erabil zitzakeen. Huftonek azaltzen duenez, zuzenbide erromatarrean ezkonsaria itzultzea senarraren beste edozein zorren aurretik zegoen, eta ohiturazko zuzenbideko eremuetan, berriz, ezkontza akordio zehatz baten pean gertatu bazen bakarrik gertatzen zen hori (Hufton, 1996, 196 or.).

Venezian, ezkonsariaren ondasunak erreklamatzeko orduan, Errepublikaren erakundeek babestu behar zituzten emakumeen interes ekonomikoak. Horregatik, estatutuen arabera, alargunak ezkonsaria itzultzeko zuen eskubidea senarraren ondarearen beste edozein erreklamazioen gainetik zegoen. Azkenik, ezkontzidearen ondarea nahikoa ez bazen ezkonsariaren batura lortzeko, ezkonsaria ordaintzeko unean itzulera eskubidea bermatu zuenaren ondasunetara jotzen zen. Orokorrean, senarrek jartzen zituzten beren ondasun guztiak, higigarriak eta higiezinak, oraingoak eta etorkizunekoak, ezkonsaria itzultzeko berme gisa. Etorkizuneko emazteen familiek, berriz, kezka handia zuten berme horiek errealak izanen zirela ziurtatzeko eta alabek alarguntzarako aseguru ekonomikoa izanen zutela ziurtatzeko (Chojnacki, 1999, 478-480 or.).

Florentzian, ajuar moduan ematen zen ezkonsariaren zatia familien arteko lehen akordioan unean ezartzen zen, eta zorrozki estimatzen zen ezkontzeko unean. Kalkulu hori *confessio dotisean* adierazten zen, etorkizunera begira oso baliagarria zen dokumentuan; izan ere, ezkonsaria itzultzea eskatzen zenean, alargunak une hartan notarioak erregistratutako zenbatekoa erreibindika zezakeen. *Confessio dotis* horrek, elkarrekiko eskubide eta betebeharrak aitortzen zituenak, funtzio bikoitza betetzen zuen: senarrak emaztegaiaren familiaren ezkonsaria puzteko joera kontrolatzea lortzen zuen (Chabot, 1994, 447-448 or.); eta, bestalde, emaztearen ahaideek dokumentu bat ziurtatzen zioten alargun izanen zenari, haren ondarea erreklamatzeko. Dokumentu hori lekukoen eta notarioaren aurrean sinatzen zen, eta artikulu zehatz eta zuhur batzuk biltzen zituen. Emaztegaiaren familia kontuz ibili arren, batzuetan akordio hori epekin zailtzen zen ezkonsaria ordaintzeko orduan, baita ezkonsaria itzultzeko orduan ere (Guerra Medici, 1996, 76-77 or.).

Florentziako kasua erakunde publikoek ezkonsari itzuleraren eskubide-sistema konplexuaren babesean egindako ekarpenaren adibide ona da. *Per sicurtà di dota* kreditu baldintzatuak XIV. mendearen bigarren erdialdetik aurrera garatu ziren. Bankuek gurasoei dei egin zieten alabentzako diru-kopuru bat gordailutzeko, ehuneko zazpi eta hamabost urte bitarteko interesarekin. Epe hori igarotakoan, ezkontza gauzatu bazen, senarrari ezkonsaria ordaintzen zitzaion. Dotazio-itunak legeak modu zurrunean finkatzen ez zituenez, emaztearen familiaren trebetasuna erabakigarria zen baldintzapeko kredituen negoziazioetan. Hauek emakumearen izenean

erregistratzen ziren eta ezin ziren alienatu edo eraldatu haren, ahaideen edo, hala bazegokion, bankuko ofizialen baimenik gabe. Horrela, emakumearen etorkizuna bermatzen zen; izan ere, alargun izanez gero, ezkonsaria eskatu eta senarraren etxean jarraitu nahi zuen erabaki zezakeen, seme-alaben tutore eta bere ondarearen administratzaile gisa (Guerra Medici, 1996, 78 or.).

Ingalaterran, gizarte-maila baxuenetan, emaztearen ondasunak bermatzeko lurrik ez zegoenean, alargun batek jakin zezakeen senarraren kudeaketa ez zela ona izan eta bere ondasunak arriskuan jarri zituela. XVII. mendearen erdialdean, Ingalaterrako Gerra Zibilean, emakume askok beren ondareak murriztu zituzten, eta, nahiz eta dotazio-akordioak legez baliozkoak izan, ez zuten ezkonsaria osorik berreskuratu. Gainera, alargunari zegokiona argi eta garbi zehaztuta egon arren, senarraren familiak bere eskubideen aurka egin zezakeen. Beraz, zailtasun horiek saihesteko, Italiako kasuan esan dugun bezala, emaztearen familiak haren alarguntasuna babesten zuen, haren ondasunak zainduz. Hau da, emaztearen familiak zenbat eta gehiago kontrolatu bere diruaren kudeaketa, orduan eta hobeto egonen litzateke alargunduko balitz. Estatu-tituluen fidagarritasun gero eta handiagoak eta XVII. mendearen amaieran Ingalaterrako Bankua sortzeak, inbertsio seguruez gain (hala nola, *Rentes sur le clergé de France* eta Languedoceko udal-kontseilariari emandako maileguak), emakumeentzako etekin seguruen aurreikuspenak hobetu zituzten senarra hil zenean (Hufton, 1996, 199-200 or.).

Europako tradizioari jarraituz, alargun holandarrak ere bere ezkonsaria itzultzeko bermeak aurkitzen zituen. Hau da, bere leinuaren jatorrizko ondasunak osorik ez bazeuden, alargunak bere ondasunen balioa jasotzen zuen dirutan, edo beste ondasun material batzuen baliokidea (Marshall Wyntjes, 1982, 400 or.).

Italiako, Ingalaterrako, Frantziako eta Holandako alargunek bakarrik ez zuten segurtasun hori. Aragoi, ezkonsariaren entregaren sinadurak beti babes sendoa, benetakoa eta zehatza izatea bilatzen zen. Ezkonsariaren sinadura dirutan ebazten zen, baina horrek ondasun higiezin jakin batzuetan hartzen zuen atsedean, eta ondasun horiek zergapetzen zituen, senargaiak, oro har, bere buruarekin eta zeukan guztiarekin erantzun zezan. Abala etxe bat izaten zen, landa edo etxalderen bat, mahasti bat, edo zentsu batzuk. Batzuetan, ezkontzeko eta sinadurarekin behartzeko unean, senargaiak oraindik ez zuen fidantzarako jabetzarik, eta orduan Erresumaren ohi-turara jotzen zen, ezkontzak erosi edo jasotako lehen higiezina helburu horretarako erabiltzea ezartzen zuena (García Herrero, 1990, 275-276 or.). Aragoiko Erresumaren *Fueros y Observancias*-etan zera jasotzen zen:

«Así mismo, la mujer, una vez muerto su marido, tendrá y poseerá los bienes que le fueron asignados como dote y no pueden ser embargados por las deudas o indemnizaciones del marido [...], a no ser que dichos bienes, antes de haber sido asignados en dote a la mujer, hubieran sido obligados de manera especial a otros por el marido, o emparados o embargados judicialmente a instancias de los acreedores.<sup>52</sup>

Valentzian eta Katalunian, ezkontzak irauten zuen bitartean, senarrak dotea eta *creix*-a kudeatzen zituen, eta emakumeak ezin zituen *inter vivos* dotazio-ondasunak eskuratu: ezin zizkien seme-alabei edo beste batzuei saldu edo eman, senarraren baimenik gabe. Hau da, ezkontzan, senarraren *exovarrak* eta *creixak* senarraren jabetzapean jarraitzen bazuten, senarraren ondarea zen ondasunak kontserbatzeaz eta itzultzeaz arduratzen zena, eta, beraz, Italiako, Herbehereetako eta Aragoiko kasuan bezala, senarraren espekulazioek eta legez kontrako edo legezko egintzen ondorioz hartutako betebeharrak edo erantzukizunak ez zieten eragiten.<sup>53</sup> Berme horrek aipatutako *tenuta* eskubideari ere eragiten zion Valentzian. Eskubide hori, batez ere, ondasun libreen gainekoa zen, baina halakorik ez bazegoen, edo nahikoak ez baziren, aurreko ahaide batek lotutakoei ere aplikatu ahal zitzaizkien (Guillot Aliaga, 2000, 453-478 or.).

Penintsulatik mugitu gabe, aurreko adibideetan bezala, Gaztelan senarrari zegokion ezkonsariaren administrazioa, baina, lehen esan bezala, «benetako» jabetza emazteari zegokion.<sup>54</sup> Horregatik, Gaztelako lurraldean ere justiziak senarra egiten zuen emaztearen ondasunen kudeaketa txarraren erantzule, eta ezkonsaria berriro osatzera behartzen zuen (Bel Bravo, 2000, 188-190 or.).

Nafarroako Erresuman ere alargunak bazituen berme batzuk. Oro har, ezkonsariaren entrega sinatzerakoan edo ezkontza-kontratuan ondasun dotalen baldintzak ezartzerakoan, ondasun horiek jasotzen zituen senarrak edo haren familiak, ondasun higigarri eta higiezin guztiak bahitzen zituen, oraingoak eta etorkizunekoak, ezkonsaria itzultzeko berme gisa. Ondasun dotalak itzultzeko berme horiek alargunaren bizitzatik haratago ere joan zitezkeen. Iruñeko Gorteeek 1642an egindako eskaera batek, geroago 1652an berretsiak, ezartzen zuen *tornadotea* gauzatu egin behar zela, nahiz eta emakumea hila izan.<sup>55</sup> Ezkonsaria ezarritako epeetan itzultzen ez zenean, eta auzitegiek alargunei legez zegokiena ezkonsaria zeukanari epaia betetzeko agintzen ziotenean, betebeharrak azken ondorioetaraino eramaten ziren. Beste leku batzuetan bezala, ezkonsaria emateko unean senarrak ezkonsaria itzultzea ziurtatzeko adinako ondasunak ez zuenean, fidatzaile bat izendatzen zen, senarra ez zegoenean, *tornadote*-eskaeraren aurrean erantzunen zuena (Chojnacki, 1999, 478-480 or.).

Laburbilduz, Europan emakumearen dotea babesteko bi modu aurkitzen ditugu. Lehenik eta behin, Huftonek azaltzen duen bezala, Zuzenbide erromatarreko eskualdeetan legeak alargunaren dotazio-ondasunak babesten zituen senarraren akreodoreen aurrean edo senarraren kudeaketa txarraren aurrean. Esan den bezala, ezkonsariaren jabetza «erreal» emakumeena bazen ere, kasu gehienetan senarrarena zen bere kudeaketa. Horregatik, bera zen, bere ondasunekin, ezkonsariak izan zitzakeen aldaketan aurrean erantzun behar zuena. Jakina, behin hilez gero, senarrak ezin izanzen ziren aurre egin emaztearen ondasunei bere administrazio txarrak ekarriko lizkiekeen eragozpenei, eta, beraz, hildakoaren ahaideek, oinordekoek edo fidatzaileek hartu behar zuten beren gain alargunari ezkonsaria itzultzeko ardura.

Bestalde, ezkonsaria babesten zuen legerik ez zegoen ohiturazko zuzenbideko arloetan, emaztegaiaren familia dotazio-ondasunak hainbat modutan ziurtatzen saiatzen zen, normalean notario-akten bidez. Batzuetan, dotea babesten zuten legeak zeuden lekuetan ere egiten zen hori, eta, beraz, aurretiko kontratuen edo notario-akten bidez dohainak defendatzea osagarria zen emakumea babesteko bere balizko alarguntasunean.

### Azken gogoetak

Artikulu honetan, Europa modernoko emakumeek beren ondasunak –ezkonsaria- eta senarraren ondasunak –gozamina- kudeatzeko erabili zituzten bi figura juridikoak aztertu dira. Gozamenari dagokionez, paper garrantzitsua jokatzeko zuten Nafarroako gizarte modernoan: alde batetik, alargunei euskarri ekonomiko bat eskaintzen zien bakardadeko urte latzei aurre egiteko; beste alde batetik, familia-unitatea babesten zuen. Senarraren ondasunen kudeaketari esker, sarritan seme-alaben tutoretzarekin batera, ezkonduka zeudenean baino autoritate-maila handiagoa lortu zuten. Beste alde batetik, autonomia horrek eta eskubidez berea ez zen ondare baten kudeaketak hildakoaren familiaren interesekin talka egiten zuen, sarritan alarguna oztopo huts gisa ikusten baitzuten. Beraz, alargunek zorrotz errespetatu behar izan zituzten arauak eta legeak, beren eskubideari eutsi nahi bazioten. Edozein deskuidu aprobetxatuko lukete alargunei familia-ondarearen kudeaketa kendu nahi zieten oinordekoek. Azkenik, alargunaren eskubidea beti ezkontzako seme-alaben interesen mende geratu zen; ezkontideak bere testamentuan alargunari gozamenari eusteko pribilegioa ematea erabaki bazuen ere, alargunak ondasun horien gozamina izaten jarrai zezakeen. Hala ere, lehenengo ezkontzako seme-alabak izanen lirateke beti aitaren ondarearen onuradunak. Foru-alarguntasunaren usufuktua izan zen senarrak galdu zituzten emakume haien biziraupenaren aldeko jolasaren zutabe nagusietako bat, are gehiago Nafarroako Gorteen Erresuman ohikoa zena idatziz jasotzea erabaki zutenean.

Bestalde, lan honetan ikusi dugunez, ezkonsaria aingura bat izan zen XVI. eta XVII. mendeko alargunentzat, senarraren heriotzak iragartzen zuen ekaitz gogorraren aurka borrokatzeko. Ezkontidea hiltzean bere ondasunak berreskuratzen bazituen, nolabaiteko independentzia ekonomikoa izanen zuen. Izan ere, emakumezkoen ezkonsaria helburu horrekin sortu zen, alargunduko balitz, emakumeari etorkizun bat bermatzeko. Hori izan zen Aro Modernoan ezkonsariaren izaera: alargunak bere burua defendatzeko eta prekarrietatik ihes egiteko erabil zezakeen tresna bat zen, bizirauteko aukera bat. Hori berresten dute Nafarroako legeek mende hauetan zehar. Bere ezkonsaria etorkizunerako bermea zen: dela miseriatik ihes egiteko, dela ezkontza berri batean edo zahartzaro duin batean inbertitzeko.

## OHARRAK

1. Gozamina tradizio foral hispanikoetan (Arregui Gil, 1968; Lacruz Berdejo eta García Herrero) edo Italiako sistemetan, ez horren eskuzabalak (Benadusi, 1998; Calvi - Chabot, 1998; Cavallo, 1998; Chabot, 1996; Guerra Medici, 1996; King, 1991; Lumia, 1998; Paterni, 1998; Skinner, 1999) sistema honek bazituen bere berezitzun propioak lurraldearen arabera.
2. Sistema fiduziarioaren barruan, *dower* ingelesa da azterketa gehien jasotzen erakundeetako bat. Senarraren ondasunen herenaren esleipena zen, alarguna bizi zen bitartean eta seme-alabarik bazen. Horrela, seme-alabek beste herena jasotzen zuten, eta testamentugileak azken herena eskura zezakeen bere arimaren onerako (eta hileta-xedapenetarako). Bikoteak seme-alabarik ez bazuen, alargunak, bizi artean bezala, ondarearen erdia jasotzen zuten. Ingalaterrako legea oso eskuzabala zen, alargunak hurrengo ezkontza batera eraman zezakeelako senarraren ondarearen parte hau. Hil ondoren, jabetza lehen ezkontzako gizonetako oinordekoengana itzultzen zen. Horrela, emazteari ordaina ematen zitzaion ezkontzari egindako ekarpenegatik. *Dower*aren inguruan: Hanawalt, 1986 y 1994; King, 1991 eta Sheridan Walker, 1993.
3. Gaztelan horixe zen erabilitako ezkontza-erregimena. Horrela, senarra hil ondoren, ezkontide hilaren ondarea eta alargunarena bereizi behar ziren, halako moldez non ezkonsaria emazteari itzultzen zitzaizkion eta irabazpidezkoak erdibitzen. Senarraren zorrak kitatu ondoren, gainerakoa ondare heredagarria zen. Birriel Salcedo (1998, orr. 50-52). También en Casey - Bernard (1987, 199-200).
4. Morenok eta Zabalzak formula hori eta Nafarroarako beste batzuk azaltzen dituzte. «Etxean ezkontzean» alargunak ez zuen alarguntasun-gozamina galtzen, nahiz eta berriro ezkondu, eta alarguna oinordekoaren egoerarekin parekatzen zuten. «Ermandade tronkaleko testamentuak», komunitate tronkalaren existentzia auresuposatzen zuten; nagusi zaharrek eta nagusi gazteek etxeko ondasunak elkarrekin kudeatzeko eta irabazpidezkoak erdibana banatzeko konpromisoa hartzen zuten. Komunitateko kide bat hil ondoren, gainerakoek haren ondasunak banatzen zituzten. Moreno Almárcegui - Zabalza Seguín (1999, 150).
5. Horrela izan zen Nafarroan: Arregui Gil, 1968, 40-44 eta Lacruz Berdejo, 1966, 250-252. Aragón eta Kataluniako gozamenari buruz: Sancho Rebullida, 1955.
6. (Ley XXXVII). 1691-1692 Gorteak, Lizarra. Nov. Recop. III, lib. 3º, tit. 7, ley X, 202.
7. José Arregui: «Usufructo que compete al cónyuge viudo, mientras permanece en tal estado, sobre todos los bienes y derechos que en el momento del fallecimiento pertenecían al premuerto». Arregui Gil, 1968, 36.
8. Calvi (1994, 12-13) eta Sheridan Walker (1993, 85). Nafarroako Artxibo Orokorrean alargunak gozamenaren inguruan bultzatu zituzten auziak ugariak dira.
9. Huftonek argi ikusten du XVI. eta XVII. mendetako testamentuetan. Hufton, 1996, or. 196-197. Baita ere: Hanawalt, 1986, or. 221 eta Sheridan Walker, 1993, 81. Italiako kasuari buruz Lumia, 1998, 47 eta Paterni, 1998, 74. eta Nafarroari buruz Moreno Almárcegui - Zabalza Seguín, 1999, 151.
10. Pedro de Rocaforteren testamentua, 1594ko urtarilaren 25a, Zangotza. Nafarroako Artxibo Orokorra (NAO), Errege Epaitegiak. Prozesuak 099735, 13-16.
11. Pascuala de Andosilla, Andosilla, 1596. NAO, Errege Epaitegiak. Prozesuak 099735, 7. Lumiak antzeko esker-adierazpenak aurkitzen ditu Sienako testamentu modernoetan, «fedele compagnia». Lumia, 1998, 47.
12. Lacruz Berdejo, 1966, 250. Moreno Almárcegui - Zabalza Seguín, 1999, 151. Dower ingelesaren funtzioa antzekoa zen: familia-nukleoaren betikotzearen ikuspegitik, alargunak ezkontzaren seme-alabak mantendu eta hazi ahal izatea bermatzea zen. Hanawalt, 1994, 465-466.
13. Hau ere beste lurralde batzuetan ikus daiteke: Gaztelan, Barbazza, 1999, 146.; Extremaduran, Cava López, 1999-2000, 272-273; Valentzian, Belda Soler, 1966, 117.
14. Juan Cerucoren testamentua, Gares, 1560. NAO, Errege Auzitegiak. Prozesuak 028843, 99-102.
15. Martín de Cruzaten testamentua, 1640, Tuter. NAO, Errege Auzitegiak. Prozesuak 151432, 7-8.
16. King, 1991, 67-68. Huftonek ere hainbat eredu eskaintzen ditu honen inguruan. Hufton 1996, 198-201.
17. NAO, Errege Epaitegiak. Prozesuak, 013338, 5.
18. NAO, Errege Epaitegiak. Prozesuak, 013338, 6-8.
19. NAO, Errege Epaitegiak. Prozesuak, 013338, 1.
20. Pérez Baltasar, 1984, 21-22. Historialari ugari aztertu dute erakunde hau. Aro Modernoko doteari buruzko bibliografia zabalaren adibide labur



- gisa: Ago, 1996; Alonso, 1978; Arcas Campoy, 2001; Barbazza, 1989; Barrio Moya, 2001; Birriel Salcedo, 1998 eta 2007; Calvi; 1994, 4-7; Cárdenas, 1984; Casey - Bernard, 1987; Chabot, 1994; Díaz Hernández, 2004; García Falcón, 2001-2002; Gómez de Valenzuela, 2003; González Mezquita, 2000; Goody, 1973; Herlihy, 1976; Guerra Medici; 1996, 73-78; León Navarro, 1995; Lo Forte Scirpo, 1999; López Cordón, 1994; Owen Hughes, 1978; Pérez Molina, 1994, 40-41; Peristiany, 1987; Sánchez - Cremades, 1986.
21. Alaba batentzat ezkonsaria ez zen ondasun multzo bat soilik, jatorrizko familian zuen balioaren, aitaren, eta amaren afektuaren neurria ere bazen. Ohorezko ezkontza bat egiteko aukera ematen zion ondarea zen, senarraren errespetua bermatzen ziona. Guerra Medici, 1996, 73-74.
  22. Pérez Molina, 1994, 40-41. Alabentzat gordetako aitaren ondarearen parte bat zen. Guerra Medici, 1996, 75.
  23. Giulia Calvik historiagileen artean izandako eztabaida jasotzen du. Calvi, 4-7.
  24. Goody, 1973. Birriel Salcedok uste du Gaztelako emakumeak ez zeudela herentziatik kanpo, eta ezkonsaria esleitzeak ez zuela, inola ere, aitaren ondaretik baztertzen. Are gehiago, Casey - Vicentek Granadari buruz egindako lanetara joz, hobekuntza alabei esleitzeaz ere hitz egin du. Birriel Salcedo, 1998, 50-51.
  25. Owen Hughesen ikuspegia baino baikorragoa den hau David Herlihyk ere partekatzen du. Herlihy, 1976.
  26. «Ezkontidea hil ondorengo bizirik atera zen senargaiaren aseguria zen. Izan ere, hori da ezkonsariaren eginkizunetako bat, ia ezkontza-kontratu guztiek errespetatzen duten gutxienekoa. Bizirik dagoen ezkontidea beste familia batean bizitzea onartzen du, berriro ezkontuz». Moreno Almarcegui - Zabalza Seguín, 1999, 141.
  27. María Urdin de Iquerrea, Etxauri, 1539. NAO, Errege Auzitegiak. Prozesuak, 027006, 4.
  28. Isabel de Juarbe y Monreal, Zizur Nagusia, 1534. NAO, Errege Auzitegiak. Prozesuak 130337, 5-6.
  29. NAO, Errege Auzitegiak. Prozesuak 065350, 10.
  30. NAO, Errege Auzitegiak. Prozesuak 065350, 10.
  31. Observancias, vol. III, lib. 5, d. d. 33. 217.
  32. Pisa, Siena eta Arezoren estatutuek ezkonsariaren erdia ematen zioten alargarunari, Montepulciano eta Luccaren estatutuek bi heren, eta Florentziako estatutuek, berriz, ezkonsari osoa. Guerra Medici, 1996, 76.
  33. NAO, Errege Auzitegiak. Prozesuak 065350, 10.
  34. Ezkontza-horniak edo 'arras' gaztelera.
  35. 1580. urteko Gorteak, Iruñean, urtarrilaren 10etik maiatzaren 11 bitartean. Nov. Recop. de Elizondo, lib. 3º, tit. 11, ley I, p. 209.
  36. Moreno eta Zabalza zera diote ondare pertsonal hauen kudeaketa oso handia zela. Moreno Almarcegui - Zabalza Seguín, 1999, 141.
  37. 1642eko Gorteak, Iruñean, uztailearen 12tik abenduaren 27ra. Nov. Recop. de Elizondo III, lib. 3º, tit. 11, ley VI, 212-213.
  38. 1677-1678eko Gorteak, Iruñean, 1677eko apirilaren 6tik 178eko ekainaren 28ra. Nov. Recop. de Elizondo III, lib. 3.º, tit. 11, ley VII, 213.
  39. Observancias, vol. III, lib. 5, d. d. 52, 219.
  40. Novísima Recopilación de las leyes de España, lib. 10, tit. 2, ley 1.
  41. Horri dagokionez, pragmatika batzuek jasotzen zuten ezkontza-horniek askotan gehiegizkoak zirelako kezka, hainbestearino non askok beren ondasunak bahituran jarri baitzituzten. Horregatik, Karlos I.ak 1534an eta Felipe II.ak 1573an, ildo horretan, (Novísima Recopilación, lib. 10, tit. 3, ley 6), ondoren, Felipe IV.ak lege hori berretsi zuen 1623ko otsailaren 11ko pragmatika baten bidez (Novísima Recopilación, lib. 10, tit. 3, ley 7).
  42. Novísima Recopilación de Elizondo, lib. 3º, tit. 11º, ley II, p. 209.
  43. Ezkonsaria berreskuratzeko eskubidearen inguruan hainbat egilek ikertu dute: Alonso, 1978; Arcas Campoy, 2001; Baixauli, 1992 eta 2003; Barbazza, 1989; Barrio Moya, 2001; Belda Soler, 1966; Birriel Salcedo, 1998; Cabreda Sánchez, 1993; Cavallo - Warner, 1999, 12-13; Chabot, 1994, 443-449; Chojnacki, 1999; Díaz de Rábago Hernández, 1999; Díaz Hernández, 2004; Fauve -Chamoux, 2002, 364; González Mezquita, 2000; Guerra Medici, 1996, 100; Guillot Aliaga, 2000 eta 2001; Hufton, 1996, 196-200; Iradiel, 1986; Kagan, 1981, p. 86; Klapisch-Zuber, 1988, 290-292; León Navarro, 1995; Lo Forte Scirpo, 1999; Peristiany, 1987; To Figueras, 2002, 138-139.
  44. Lehenago esan den bezala prozedura hone *giudicato* deritzo.
  45. Valentziako ezkonsariaren berreskuratze eskubideen inguruan: Baixauli, 1992, 261-280; Baixauli 2003, 663-692; Belda Soler, 1966; Guillot Aliaga, 2000, 453-478; Guillot Aliaga, 2001, 267-288; Iradiel, 1986, 223-259.
  46. «La muller no pusca pendre marit dins un any pus quel marit era mort, e si ho fara perda qualq cosa per donacio per nupcias, o per benefici del marit hac [...]». Fuero de Valencia, Fuero 6, Rúb. 2, lib. 5.
  47. Ley 54 de Toro. Novísima Recopilación de las leyes de España, lib. 10, tit. 3, ley 3, 22-23.

48. Iruñeko Gorteak 1642. urtean eta Iruñeko Gorteak 1652-1654, Nov. Recop. de Elizondo III, lib. 3º, tit. 5º, ley XIX, p. 183. Bikoteak seme-alabarik ez bazuen Ipar Holandako legeak ere argi uzten zuen: alargunak bere ondare guztiak jaso behar zituena, baita ezkontza bion artean konkistatutakoaren erdia ere. Marshal Wyntjes. 1982, 396-405.
49. Fuero de Vizcaya, tit.20, ley 2, p. 103.
50. Ez da Europa osoan horrela gertatzen: Aragoiaren esate zen emazteak ez zuela galduko ezer ez bigarren aldirik ezkontu arren. García Herrero, 1990, 275 or.
51. Chojnacki, 1999, 468-469. Esan dugunaren arabera, Nafarroan, alargunak bazuen eskubidea ezkontzaria bigarren ezkontza batera eramateko eta ez zegoen derrigortuta lehenengo ezkontzako seme-alabei deus gordetzeko.
52. Observancias, lib. 5, d. d. 56, pág. 219, vol. III.
53. Fuero de Valencia, Rúbrica 5, Libro 4.
54. Hasiera batean, senarrak debekatuta zeukan zuzkidura-ondasunak saltzea (partidak, 4, 11, 7). Ondoren, legeria leundu egin zen alderdi horretan, eta baimendu zen, baldin eta emakumeak bere eskubideak onartzen bazituen eta horiei uko egiten bazien. Díaz Hernández, 2004, 125.
55. 1652-1654eko Gorteak, Iruñean, 1652eko abuztuaren 1ean, 1654eko ekainaren 16an. Nov. Recop. de Elizondo III, lib. 3º, tit. 5º, ley XIX, p. 183.

## REFERENCIAS BIBLIOGRÁFICAS

- ALLEGREZZA, Franca (1998): «Legami di affinità nel baronato romano: il caso degli Orsini (XIII-XIV secc.)», en CALVI G. y I. CHABOT (eds.). *Le ricchezze delle Donne. Diritti patrimoniali e poteri familiari in Italia (XIII-XIX secc.)*. Turín: Rosenberg & Selier, or. 21-42.
- ARREGUI GIL, José (1968): *La fidelidad vidual en el derecho privado de Navarra*. Pamplona: Aranzadi.
- BARBAZZA, Marie Catherine (1999): «Las viudas campesinas de Castilla la Nueva en los siglos XVI y XVII», en LÓPEZ BELTRÁN, M. T. (coord.), *De la Edad Media a la Moderna: Mujeres, educación y familia en el ámbito rural y urbano*. Málaga: Atenea. Estudios sobre la mujer y Universidad de Málaga, or. 133-164.
- BELDA SOLER, María Ángeles (1966): *Contribución al estudio de las instituciones del Derecho histórico valenciano. El régimen matrimonial de bienes en los «Furs de Valencia»*. Valencia: Cosmos.
- BENADUSSI, Giovanni (1998): «Equilibri di potere nelle famiglie toscane tra Sei e Settecento», en CALVI G. y I. CHABOT (eds.). *Le ricchezze delle Donne. Diritti patrimoniali e poteri familiari in Italia (XIII-XIX secc.)*. Turín: Rosenberg & Sellier, or. 79-94.
- BIRRIEL SALCEDO, Margarita (1998): «Más allá del repartimiento. Género, familia y patrimonio», *Chronica Nova*, 25, or. 77-91.
- BLANCH NOUGUÉS, José María (2010): «El legado del usufructo a favor de las personas jurídicas en el derecho romano», *Revista general de Derecho Romano*, 14.
- BOUZADA GIL, María Teresa (1997): «El privilegio de las viudas en el Derecho Castellano», *Cuadernos de historia del Derecho*, 4, or. 203-244.
- CALVI, G Giulia (1994): *Il contratto morale. Madri e figli nella Toscana moderna*. Roma-Bari: Laterza.
- CALVI, Giulia y CHABOT, Isabelle (eds.) (1998): *Le ricchezze delle Donne. Diritti patrimoniali e poteri familiari in Italia (XIII-XIX)*. Turín: Rosenberg & Sellier.

- CARDUCH GARGALLO, Manuel (2007): «Los derechos sucesorios del viudo en Vizcaya y Ayala (I). El usufructo legal del viudo en Vizcaya: naturaleza jurídica, requisitos y objeto», *Estudios de Deusto: revista de la Universidad de Deusto*, vol. 55, 1, or. 11-48.
- CASEY, James y BERNARD, Vincent (1987): «Casa y familia en Granada», en CASEY J. (ed.). *La familia en la España mediterránea, s. XV-XIX*. Madrid: Crítica, pp. 172-210.
- CAVA LÓPEZ, María Gema (1999-2000): «La tutela de los menores en Extremadura durante la Edad Moderna», *Revista de Historia Moderna*, 18, or. 265-288.
- CAVALLO, Sandra (1998): «Proprietà o possesso? Composizione e controllo dei beni delle donne a Torino (1650-1710)», en CALVI G. y CHABOT I. (eds.), *Le ricchezze delle Donne. Diritti patrimoniali e poteri familiari in Italia (XIII-XIX secc.)*, Turín: Rosenberg & Sellier, or. 187-208.
- CORLEY, Christopher (2004): «Preindustrial “single-parent” families: the tutelle in early modern Dijon», *Journal of family history*, 29, or. 351-365.
- CHABOT, Isabelle (1996): «Risorse e diritti patrimoniali», en GROPPI A. (Ed.), *Il lavoro delle donne*, Roma-Bari: Laterza, or. 47-70.
- CHOJNACKI, Stanley (1999): «Riprendersi la dote: Venecia, 1360-1530», en S. Seidel Menchi, A. Jacobson Schutte, y T. KUEHN, *Tempi e spazi di vita femminile tra medioevo ed età moderna*, Boloña: Il Mulino.
- DIEFENDORF, Barbara (1982): «Widowhood and remarriage in Sixteenth century Paris», *Journal of Family HISTORY*, 7, or. 379-395.
- FARGAS PEÑARROCHA, María Adela (2021): «El retorno de la dote. Una perspectiva social y cultural (Barcelona, siglos XVI-XVII)», en *Historia Social*, 100, or. 3-19.
- GANDÁSEGUI APARICIO, María José (1999): «Una contienda judicial entre dos mujeres. Procesos y sentimientos (1773-1775)», *Cuadernos de Historia Moderna*, 22(9), or. 33-52.
- GARCÍA HERRERO, María del Carmen (1993): «Viudedad foral y viudas aragonesas finales de la Edad Media», *Hispania*, 184(2), or. 431-450.
- GREER, Margaret Rich (1994): «The (Self) Representation of Control in ‘La dama duende’», en GANELIN C. y MANCING H. (eds.), *The Golden Age Comedia: text, theory and performance*. West Lafayette: Purdue University Press, or. 87-106.
- GUERRA MEDICI, Maria Teresa (1996): *L'aria di città. Donne e diritti nel comune medievale*, Edizione Scientifiche Italiane.
- GUIDI, Laura (1998): «La tutela materna a Napoli nell'Ottocento», en CALVI G. y CHABOT I. (eds.), *Le ricchezze delle Donne. Diritti patrimoniali e poteri familiari in Italia (XIII-XIX secc.)*. Turín: Rosenberg & Sellier, or. 233-256.
- HANAWALT, Barbara A. (1994): «Widows, Wards and the Weak London Patrilineage», *Quaderni Storici*, 83.
- HANLEY, Sarah (1989): «Engendering the state: family formation and state building in early modern France», *French Historical Studies*, 16, or. 4-27.
- HUFTON, Olwen (1996): *Destini Femminili. Storia delle donne in Europa, 1500-1800*. Milán: Mondadori.
- KAGAN, Richard L. (1981): *Lawsuits and litigants in Castile. 1500-1700*. Chapel Hill: University of North Carolina Press.
- KING, Margaret L. (1991): *Le donne nel Rinascimento*. Roma-Bari: Editori Laterza, 1991.
- KLAPISCH-ZUBER, Christiane (1988): *La familia e le donne nel Rinascimento a Firenze*. Roma-Bari: Editori Laterza.
- LACRUZ BERDEJO, José Luis (1966): «Cuestiones fundamentales de la viudedad foral navarra», *Principio de Viana*, 27, or. 245-266.

- LUMIA, Gianna (1998): «Mariti e mogli nei testamenti senesi di età moderna», en CALVI G y CHABOT I. (eds.), *Le ricchezze delle Donne. Diritti patrimoniali e poteri familiari in Italia (XIII-XIX secc.)*, Turín: Rosenberg & Sellier, or. 43-64.
- MATE, Mavis E. (1999): *Daughters, Wives and Widows after the Black Death. Women in Sussex, 1350-1535*, Woodbridge: Boydell Press.
- MIKELARENA PEÑA, Fernando (1995): *Demografía y familia en la Navarra tradicional*. Pamplona: Gobierno de Navarra.
- MIKES, Tünde (2017): «Legislació històrica de la família catalana medieval i moderna», *Butlletí de la Societat Catalana d'Estudis Històrics*, 28, or. 163-196.
- MISKIMIN, Harry A. (1992): «Widows Not So Merry: Women and the Courts in Late Medieval France», en MIRRER L. y ARBOR A. (ed.), *Upon My Husband's Death. Widows in the Literature and Histories of Medieval Europe*, The University of Michigan Press, or. 207-219.
- MORENO ALMÁRCEGUI, Antonio y ZABALZA SEGUÍN, Ana (1999): *El origen histórico de un sistema de heredero único. El prepirineo navarro, 1540-1739*. Madrid: Rialp.
- PAROLA, Monica (1998): «Vedove e orfani a Torino nel periodo napoleónico», en CALVI G. y I. CHABOT (eds.), *Le ricchezze delle Donne. Diritti patrimoniali e poteri familiari in Italia (XIII-XIX secc.)*, Turín: Rosenberg & Sellier, or. 257-274.
- PATERNI, Paola (1998): «Le leggi della città, le leggi della famiglia (Lucca, XVI-XVIII secc.)», en CALVI G. y I. CHABOT (eds.), *Le ricchezze delle Donne. Diritti patrimoniali e poteri familiari in Italia (XIII-XIX secc.)*, Turín: Rosenberg & Sellier, or. 65-78.
- PÉREZ BALTASAR, María Dolores (1984): *Mujeres marginadas: casas de recogidas en Madrid*, Madrid: autoedición.
- PÉREZ MOLINA, Isabel (1997): *Las mujeres ante la ley en la Cataluña moderna*. Granada: Servicio de Publicaciones de la Universidad de Granada.
- PÉREZ MOLINA, Isabel y GIL, Antonio (1990): «“Hembras vils” versus verges ideals: La justicia moderna i la dona», *L'Avenç*, or. 30-35.
- RAMOS LOSCERTALES, José María (1956): *Fuero de Figuera y Val de Funes*. Salamanca: Universidad de Salamanca.
- SANCHO REBULLIDA, Francisco (1955-1956): «La viudedad aragonesa», *Anuario de Derecho Aragonés*, 8, or. 7-23.
- SHERIDAN WALKER, Sue (1993): «Litigation as Personal quest: Suing for Dower in the Royal Courts, circa 1272-1350», en SHERIDAN WALKER, S. (ed.), *Wife and widow in Medieval England*. Michigan: University of Michigan Press.
- SKINNER, Patricia (1999): «The widow's options in medieval southern Italy», en Cavallo S. y Warner, L. (eds.), *Widowhood in Medieval and Early Modern Europe*. Londres: Longman, or. 57-65.
- STRETTON, Tim (1999): «Widows at law in Tudor and Stuart England», en Cavallo S. y Warner, L. (eds.), *Widowhood in Medieval and Early Modern Europe*. Londres: Longman, or. 193-208.
- VIGIL, Mariló (1986): *La vida de las mujeres en los siglos XVI y XVII*. Madrid: Siglo XXI.
- WARNER, Lyndan (1999): «Widows, widowers and the problem of 'second marriages' in sixteenth-century France», en CAVALLO S. y WARNER, L. (eds.), *Widowhood in Medieval and Early Modern Europe*. Londres: Longman, or. 84-107.
- ZULUETA DE REALES ANSALDO, Leticia y CANO POLO, Belén (2000): «El usufructo de fidelidad navarro», en MARTÍNEZ-SIMANCAS SÁNCHEZ, J. y BERCOVITZ RODRÍGUEZ-CANO R. (coords.), *Derechos Civiles de España*, vol. 7. Madrid: Sopec, or. 4487-4506.

## RESUMEN

En los dos primeros siglos de la Edad Moderna, las viudas europeas dispusieron de diversas fórmulas para administrar su patrimonio: desde los sistemas fiduciarios, pasando por los regímenes de gananciales o, en relación con este trabajo, los sistemas de usufructo y la gestión de la dote. En este artículo se analizan los sistemas de usufructo del patrimonio del marido fallecido y las leyes que se desarrollaron a lo largo de Europa en torno a la restitución de la dote. ¿Con qué leyes contaban las viudas en los territorios europeos para gestionar sus bienes o los de sus difuntos maridos? ¿Tuvieron algún sistema de protección? ¿Y qué diferencia hubo entre unas tradiciones y otras? Para responder a estas preguntas, este artículo analizará la legislación europea para entender las fórmulas que tuvieron las viudas de estos territorios para gestionar su patrimonio propio y familiar, con especial atención a las costumbres jurídicas de los Pirineos y, especialmente, al Reino de Navarra.

**PALABRAS CLAVE:** Edad Moderna, Navarra, viudas, administración del patrimonio.

## LABURPENA

Aro Modernoko lehen bi mendeetan, alargun europarrek hainbat formula izan zituzten ondarea administratzeko: fidantza-sistemak, irabazpidezko erregimenak edo, lan honi dagokionez, gozamen-sistema eta dotearen kudeaketa. Lan honetan aztertuko dira zendutako senarraren ondarearen gozamen sistemak eta ezkonsariaren berreskuratzearen inguruan garatu ziren legeak Europan zehar. Zein legek babestu zituzten alargunak Europako lurraldeetan, beren ondasunak edo senar zenduenak kudeatzeko? Babes-sistematik izan zuten? Eta zer alde egon zen tradizio batzuen eta besteen artean? Galdera horiei erantzuteko, artikuluko honek Europako legeria aztertuko du, lurralde horietako alargunek ondare propioa eta familiakoa kudeatzeko izan zituzten formulak ulertzeko, arreta berezia jarritz Pirineotako ohitura juridikoetan eta, bereziki, Nafarroako Erresuman.

**HITZ GAKOAK:** Aro Modernoa, Nafarroa, alargunak, ondarearen kudeaketa.

## ABSTRACT

In the first two centuries of the Modern Age, European widows had various ways of administering their estates: from fiduciary systems, to property regimes and, in relation to this work, systems of usufruct and the management of dowry. This article analyses the systems of usufruct of the deceased husband's estate and the laws that developed throughout Europe concerning the restitution of dowry. What laws did widows in European territories have to manage their own or their deceased husbands' property, did they have any system of protection, and what was the difference between one tradition and another? To answer these questions, this article will analyse European legislation in order to understand the formulas that widows in these territories had to manage their own and their family's assets, with special attention to the legal customs of the Pyrenees and, especially, the Kingdom of Navarre.

**KEYWORDS:** Modern Age, Navarre, widows, estate administration.